

ONARRIZKO BALIABIDEAK

KALORELLA gure enpresa mugatua da. Partaideen artean 3.000€ ordaindu beharko ditugu. Partaide bakoitzak bere aurrezkietatik ordainduko du. Hau da, bakoitzak 750€ ordainduko ditu, horrela etorkizun batean enpresa porrotera joaten bada, dena ordainduta izango dugu, bestela, pixkanaka ordainduz gero, zerbait gertatzen bada ezingo dugu dena aldi berean ordaindu. Gure enpresa 4 zatitan banatuko da eta bakoitzak enpresaren partaidetza bat izango du.

Horrez gain, dirulaguntzak eskatzeko aukera izango dugu, eta jasotako dirua ez dugu itzuli beharko. Dirulaguntza lortzeko, proiektua ondo azaldu eta beharrezko dokumentazioa aurkeztu behar dugu. Dirua jasotzen badugu, normalean nola erabili dugun eta zer emaitza lortu ditugun erakutsi behar da. Gipuzkoan, horrelako dirulaguntzak eskatu ditzazkegu :

- **BIC Gipuzkoa:** proiektu berrientzako dirua eta laguntzak ematen ditu. Adibidez, 30.000 €-tik 60.000 €-raino eskatu daitezke ideia martxan jartzeko. Aholkularitza eta espazioa ere ematen dute.
- **Gipuzkoako Foru Aldundia:** enpresa sortzeko eta hazteko dirulaguntzak ematen dituzte. Proiektu handienak ehunka mila eurokoak izan daitezke.
- **DeepTek Gipuzkoa:** teknologia eta berrikuntzako proiektuentzako laguntzak ematen dituzte; 350.000 €-rainoko finantzaketa lor daiteke.
- **Kit Digital:** enpresa txikientzako digitalizazio laguntzak (webguneak, sistema digitalak...) ematen dituzte:
 - 0-2 langile: gehienez 3.000 €
 - 3-9 langile: gehienez 6.000 €
 - 10-49 langile: gehienez 12.000 €

Horrela, proiektua hasteko dirulaguntza publikoak eta seguruak erabil ditzakegu, bankuetara jo gabe eta arrisku txikiarekin. Gainera, beti laguntza profesionala jasotzeko aukera dugu.